

Ta beste gai batzuek bigaramonerako laga-ta otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Donosti'n, Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian, 1923'ko Otsailaren 28'an.

Len aipatu dira euskaltzain berak batzaraldira datoz. Ugazletatik Gabriel Manterola jauna.

Azkue da Maipuru ta otoitza egin-da batzaraldiari asipena eman dio.

1. Amado Alonso jaunaren bitartez Euskaltzaindiak daki H. Urtel jaunak euskal-ikastaroa sortu duela Hamburgo'ko Ikastetxe-Nagusian. Euskaltzaindiak pozik entzun du. Ango ikasleentzat euskal-liburu abek igortzea erabaki da: Arigarai'en gramatika-2; Ituri-rena-1; ta Azkue'ren Prontuario de la Lengua Vasca-10.

2. Eusko-ikaskuntza ta Euskaltzaindia batera ibiliko dira *Kristau-ikasbidea* ta euskal-ipuin batzuek bederik, Euskalefiko ikasguetan sararazteko ekiñaldian.

3. Iruña'ko apaiz-ikastetxeko irakasleari 1.000 pezeta ematea erabaki da.

4. Azkue jauna batzaretik atera dan txolarte batean, Kanpion jaunak beste euskaltzainai gogorazo dizkie Euskaltzainburuak egiten dituen lanak. Euskaltzaindiaren bein-beineko etxeak zerbait esango luke, izketan baleki. Goiz ta aratsalde lanean ari da Euskaltzaindiarentzat ta lan asko ta sari gutxi. Euskaltza-

ñak baietz diote. Erabaki bat artu bear da ta langilea, bear zaion sariz, ordaindu.

Euskaltzaindiaren erabakia auxe da: Azkue jaunari, bere lan askoren ordain, 4.000 pezeta emango zaizkio urte-urtero, Euskaltzaindiaren dirutzak al lezaken bitartean.

Sari onetaz, Azkue jauna Euskaltzaindiarentzat lotzen da, orain arteroko ařeta gogo ta lanez.

5. Aita Iraizoz bekadunaren eskutiz bat irakufi da bere ikastaroaren beřia emanik.

Ta beste gairik izan ez da oiturazko otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Donosti'n, Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian, 1923' ko Epaila'ren 26'an.

Azkue jauna maipuru dala euskaltzain abek datoz: Kanpion, Urkijo, Lakonbe, Landeřetxe, Intza, Altube, Olabide ta Intzagarai eta urgaleztatik batez.

Maipuru jaunak araudi-otoitzak egin ditu ta batzaraldia asi du.

1. Euskaltzaindiak Zubero-aldeko euskaltzain gabe ez luke batzaraldirik auřerantzean egin nai, ta Aita Lhande etofi ezin dalako, egoki kitzake, ango urgazle bat batzaraldietarako aukeratzea. Izan liteke edo Uřesti, edo Irigoyen edo Moix edo Orabe Maulengo irakaslea. Auxe erabaki da: Aita Lhanderi galdetu oyetatik bat zein izan liteken, edo berak deritzana bidali dezala.